

## AT! ITZULPENAK: LITERATURA LAGINAK (2025)

### ATZERRIKO HIZKUNTZETARA ITZULTZEKO LAGINAK PROPOSATZEKO DEIALDIA

Etxepare Euskal Institutuak bere xedeen artean du jatorriz euskaraz idatzitako literatura nazioartean sustatzea. Xede horretan aurrera egin ahal izateko ezinbestekoa da atzerriko hizkuntzetara itzultitako laginak izatea. Hori dela eta, atzerrian sustatzeko aproposak izan daitezkeen literatura lanen laginak proposatzeko deialdia kaleratu du berriz ere, aipatutako lagin horiek ingelesera edo frantsesera itzul daitezzen.

### OINARRIAK

#### 1. Xedea

Deialdi honen xedea da jatorriz euskaraz idatzi eta argitaratutako literatura-obren laginak atzerriko hizkuntzetara itzultzeko proposatzea, obra horiek nazioartean sustatzeko xede nagusiarekin bat.

Aipatutako laginak ingelesera edo frantsesera itzuli beharko dira eta ez dira izango liburuaren % 15 baino luzeagoak (salbuespen gisa, poesia edo nobela grafikoaren kasuan, ehuneko hori handitzea adostu ahal izango da).

#### 2. Proposamenak aurkeztea

Idazleek, argitaletxeek edo agenteek aurkeztu ahal izango dituzte proposamenak.

#### 3. Baliabide ekonomikoak

Etxepare Euskal Institutuak gehienez ere 8.000 euro bideratuko ditu proposatutako laginak itzultzera.

Gehienez ere 400 euro gordin bideratuko dira itzulpen bakoitzera eta gehieneko tarifa 0,018 eurokoa izango da karaktereko (zuriunerik gabe, jatorrizkoan zenbatuta). Salbuespen gisa, testua zailtasun berezikoa den kasuetan, beste tarifa bat adostu ahal izango da.

Idazle baten bi lagin itzuli ahal izango dira gehienez urteko. Argitaletxe edo editore batek lau lagin aurkeztu ahal izango ditu gehienez, eta itzultzaile batek lau lagin itzuli ahal izango ditu gehienez.

#### 4. Literatura-lanak bete beharreko baldintzak

Jatorriz euskaraz idatzi eta argitaratutakoa izan behar du.

## 5. Proposamenak aurkezteko epea eta modua

a) Proposamenak aurkezteko epea 2025eko otsailaren 3an zabalduko da eta diru-zuzkidura amaitzen denean amaituko da. Epe horren amaiera Etxepare Euskal Institutuaren webgunean jakinaraziko da.

b) Eskabidea posta elektronikoz bidali beharko da [etxepare@etxepare.eus](mailto:etxepare@etxepare.eus) helbidera, honako dokumentazioarekin batera.

1. Eskaera-orria.
2. Itzultzeko hautatutako lagina Word formatuan.
3. Itzulpena egiteko proposatutako itzultzailearen CVa.
4. Liburuaren azalaren irudia (irudiaren erresoluzioa 150 pixel hazbeteko (ppp), jpg formatuan. Azala soilik, kontrazal eta ertzik gabe).
5. Idazlearen argazkia (argazkiaren erresoluzioa 150 pixel hazbeteko (ppp), jpg formatuan)
6. Fitxa bibliografikoa (deialdi honen eranskin gisa joango dena).
7. Eskatzailea idazlea bera ez bada, idazlearen baimen sinatua ere aurkeztu beharko da.

c) Proposamenak aztertu ondoren, 10 laneguneko epea izango da proposamenak izan ditzakeen akatsak zuzentzeko.

d) Proposamenak osatutzat jotako hurrenkeran zerrendatuko dira eta itzultzeko prozesuari emango zaio hasiera.

## 6. Laginak itzultzeko prozesua

Proposamenak osatutzat jotakoan, Etxepare Euskal Institutua jarriko da harremanetan proposatutako itzultzailearekin eta proposamena aurkeztu duenarekin, itzulpena egiteko epea adosteko. Epe hori ez da izango 2 hilabete baino luzeagoa.

Laginaren itzulpena amaitutakoan, itzultzaileak lanari dagokion faktura eta itzulpena aurkeztuko dizkio Etxepare Euskal Institutuari eta institutuak gehienez ere hilabeteko epean ordainduko du.

## 7. Lagina erabiltzeko baimena

Deialdian parte hartzeak esan nahiko du idazleak nahiz itzultzaileak baimena ematen diotela Etxepare Euskal Institutuari deialdi honen bidez itzultutako lagina nahiz eskaerarekin batera aurkeztutako dokumentuak erabiltzeko nazioartean euskal literatura sustatzeko zereginean. Zehazki, aipatutako horiek erabiltzeko Etxepare Euskal Institutuak sortu eta elikatuko duen [www.basquebooks.eus](http://www.basquebooks.eus) atarian. Itzultzaileak/idazleak Etxepare Euskal Institutuari itzultutako/idatzitako testuaren ustiapen eskubideak lagako dizkio modu ez eskusiboan, batez ere, erreproduzio digitaleko eta komunikazio publikoko eskubideak, apirilaren 12ko 1/1996 Legegintzazko Errege Dekretuaren 50 eta 20. artikuluen arabera. Erabilera hori ez da inoiz izango komertziala. Etxepare Euskal Institutuak konpromisoa hartuko du laginarekin batera idazlearen eta itzultzailearen izena adierazteko.

Era berean itzultzaileak/idazleak aurkeztutako lanaren originaltasuna bermatzen du eta adierazten du egindako itzulpen horren gainean ez duela konpromiso kaltegarririk hartuko.

## **8. Datuen babesa**

Deialdi honen garapenean jaso eta tratatuko diren datu pertsonalak (bereziki pertsona fisikoen datu pertsonalak) nahitaez egin beharko dira 2016/679 Araudian (EB) eta maiatzaren 5eko 1/1982 Lege Organikoak jasotakoaren arabera. Araudi horrek pertsona fisikoak babesten ditu datu pertsonalen tratamenduari eta horien zirkulazio askeari dagokionez.

## **9. Zalantzak eta gorabeherak**

Etxepare Euskal Institutuko zuzendaria izango da organo eskuduna deialdi honen inguruan sor daitezkeen zalantzak eta gorabeherak kudeatu eta erabakitzeko.